




# “Oso argi daukat ‘mertzenario’ bat naizela”

## Itziar Ituño | Fagor-eko langile ohia

Beti oinak lurrean dauzkalako hasi zen soziologia ikasketak egiten. Burugogorra delako bukatu zituen. Inplikatua bezain lotsatia, Fagor-eko lanpostu finko bati uko egin, eta Arraldeko ertzainburua da egun.

Sustrai Colina
Argazkia: Dani Blanco

**Ertzainburu guztiak lotsatiak balira...**
Lotsatiok atera beharreko gauza mordoa daukagu gordeta. Aktoretza terapia hutsa da.

**Terapia batzuk oso garesti irteten dira.**
Aktore izateko apustua egiteko oso seguru egon behar da eta ni oso pertsona insegurua naiz. Ez dut sekula “aktore izango naiz” esan, apurka-apurka etorri zaizkit gauzak.

**Eta etortzen ez direnean...**
Aspertu egiten zara. Nekatu. Ez dakizu nondik heldu, zelan... Une gogorrak dira.

***“Madrilerat banüazü”* kantatzeko bezain gogorrak?**
Gogorra da zure herria utzi eta emigrante bat izatea. Hau herri txikia da baina material itzela dago. Diru laguntzak orekatzea litzateke kontua, apustua egitea gauza berri, apurtzaile, eta alternatiboen alde.

**Alternatiba subentzionatua?!**
Istorioak kontatzen duenaren arabera jartzen da dirua. Artistek erabaki behar dute zer kontatu nahi duten, ez botereak. Hori da askatasuna, baina ez dagoenez...

**Beharrik ETAri buruzko film serio bat egiteko garaia den.**
Bat ez, ETAri buruzko pelikula eta antzerki asko egin behar dira. Ikuspegi guztietatik ikusita. Batzuek ez daukate kontatzeko aukerarik ere.

**Baina antzerkia ez al zen ongi pasatzeko?**
Lehen antzerkia aldaketaren aitzindaritza zen, tabuen normalizaziorako tresna. Gaur egun, geroz eta garrantzi gehiago ematen zaio saltzeari. Merkantilizatuta dago.

***Business is business my friend!***
Egon ahal da kontsumorako ona den artea, baina gaur egun kontsumorako saltzen dena penagarria da.

**Penagarriagoa da alternatibarik eza.**
Begira zer gizarte motatan bizi garen! Dena dago salgai, dena erosten da, dena kontsumitzen da... Zerbait aldatzen duten lan desberdinak ez dira ongi jasotzen, ez gaudelako ohituta.

**Horregatik joaten da jende gutxi antzokira?**
Gure esku dago, guk hurbildu behar dugu herrira. Agian formula aldatu eta kale-antzerkia egin behar dugu, bat-batekoa, domeka batean, poteo orduan...

**Eta jendea deseroso utzi?**
Bai, deseroso, buruari bueltaka sentimendu batekin... Arrastorik uzten ez duen antzerkia artetik oso urrun dago.

**Eskerrak batzuen ustez dena primeran doan!**
Produktoreen aldean bazaude diplomatikoa izan behar duzu. Nik oso argi daukat *mertzenario* bat naizela, eta egun batean zerbait sortzen badut artea sortu nahi dudala. ■